

2024
URTEKARIA




ALTZAPORRU

EUSKAL HERRIKO TRIKITXA ELKARTEA

2024

URTEKARIA



altzaporrU

EUSKAL HERRIKO
TRIKITIXA ELKARTEA

Harpidedunentzat doako alea

Erredakzioa

Irune Elizagoien

Koordinazioa eta ekoizpena:

Andoitz Antzizar eta
Maidar Jauregi

Diseinua eta maketazioa:

Antza S.A.L.

Inprimaketa:

Antza S.A.L.

Lege gordailua:

D 01362-2020

Euskal Herriko Trikitixa Elkartea
Enparan kalea 18
20730 Azpeitia
Gipuzkoa
Tel.: 657794217 / 669363492

Emaila:

trikitixa@trikitixa.eus

Webgunea:

www.trikitixa.eus



NEGUA

- 5 Albisteak
- 7 Argitalpen berriak
- 8 Galbahea
- 9 Erreportajea

UDABERRIA

- 11 Albisteak
- 14 Argitalpen berriak
- 15 Galbahea
- 16 Atzera begira

UDA

- 17 Albisteak
- 18 Argitalpen berriak
- 19 Galbahea

UDAZKENA

- 20 Albisteak
- 24 Argitalpen berriak
- 26 Galbahea
- 27 Iritzi artikulua
- 27 Bertsoa

Hemen daukazu 2024ko *Altza Porru!* urtekaria. Jaialdiak, omenaldiak, Trikitixa Egunak, erakusketak, erromeriak... aurten ere zenbat eskaini dion trikitiaren komunitateak euskarari eta munduari!

Esku artean daukazun urtekarian, joan den urtean izandako ekintzen berri irakurriko duzu, eta asko direla iruditzen zaigun arren, askoz gehiago izan dira, 32 orrialdetan ez baita guztia kabitzen. Trikitiak historian zehar arrakastarik izan badu, bere burua bertrasmatzen, egokitzen edota eguneratzen jakin izan duelako da. Ez du beti aldeko haizerik izan, eta kontrakoa izan duenetan ere, aurrera egin eta indartuta atera izan da. Aurtengoak ere izan ditu gora behe-rak, izan dugu gozotik eta baita gazitik ere.

Bazkideok osatzen dugun Elkarteari dagokionez berri- z, aurreko urte aldrebesak atzean utzi, eta amaitutzat eman ditugu aspaldian hasitako zenbait lan; horietako batzuk etxean jaso ditugu gainera. Eta egitasmo berriek ere argia ikusi dute urtea amaitzerako, proposamen berriekin itxi dugu zikloa. Baina beti geratzen da zer egina, zer eskainia, eta horrek indartzen gaitu, hain zuzen. Trikitia elkarrekin egiten dugunean, aberatsagoak eta anitzagoak bihurtzen gara.

Gure esku dago jaso dugun bizitzeko, sentitzeko, mundua ulertzeko era zoragarri hau, bildu, hobetu eta ematea. Segi dezagun pozaren mezulariak izaten.

Altzaporru!

Euskal Herriko Trikitixa Elkartea

NEGUA



Urteurren borobila ospatuz, Nafarroako X. Trikiti Jaialdia

📍 Lesaka

📅 Urtarrilak 27

Hamar edizio pasata, hamarkadako errepasoa eginez antolatu du jaialdia Nafarroako Trikitixa Elkarteak. Aurreko edizioetako soinu-jole eta pandero-joleak berriro elkartu eta Amaia Eneterreaga eta Joseba Olagaraik aurkeztuta, elkarrekin igo dira Lesakako Harriondoa Kultur Etxeko oholtzara. Bertan izan dira Epelde, Lutxurdio, Laja II eta Haritz Garmendia; Dani eta Ainara Narbarte, Kattalin Zubizarreta, Manex Torrealдай eta Oihan Arizala; Iker Goenaga, Alaitz Telletxea eta Fredi Pelaez; Xabi, Ainara, Leire, Amaia eta Gari; Miren, Agur, Mirari eta Aintzane; eta Nafarroako Trikitixa Elkarteak. Jaialdiaren ondoren trikipoteoa egin dute eta afal ondorengo trikiti doinuak goizaldera arte luzatu dira.



Nafarroako X. Trikiti jaialdia. Argazkiak: Ibon Errazu

Txapelketaren ordeztu jaialdi formatua hartu du Lazkaoko zitak

📍 Lazkao
🕒 Martxoak 02

Aurten Lazkaoko Lazkao Txiki musika eskolan I. trikitixa jaialdia antolatu da, aurreko urteetan txapelketa egiten zen arren. Alaitz Telletxea, Iker Goenaga eta Fredi Pelaez; Arbeo, Garixe, Maltzeta eta Attola; Irati Arzelus, Araitx Etxaniz, Mirari Plazaola eta Elaia Diaz; eta musika eskolako ikasleak, Iker Makibar, Natale Gutierrez, Nerea Postolachi, Aiara Aizpurua, Saioa Berasategi eta Ane Urretabizkaia izan dira Lazkaoko frontoiko protagonistak. Jaialdiaren ondoren kalejira egin dute.

San Josetako Trikiti Jaialdia Joxe Luis Etxeberria Xapre soinu-jole zaldibiarra omenduz

📍 Azpeitia
🕒 Martxoak 16

Beste urte batez Soreasu antzokia goraino bete da, aurtengoan Lixarratarrak; Ane Etxezarreta eta Sara Iriarte; Zaldibiko lagunak; Xabier Zabala eta Andoni Egaña; Jon Ostolaza eta Andoni Larrañaga; Daniel Oiarbide eta Pello Urdangarin; eta Imuntzo eta Beloki, Iker Allur eta Jokin Tolosaren saioak ikusteko. Jaialdia borobiltzeko, omendua izan den Xapre soinu-joleak ere pieza bat eskaini du antolatzaileen laguntzarekin.




San Josetako jaialdia. Argazkiak: Ibon Errazu

EGAÑAZPI.

Ezink esan polita ez dela...

Gorka Erostarbe Leunda



Euskal Herriko Trikitixa Elkartek Soinuaren Liburutegiko hamaseigarren alea argitaratu du. Erostarbek liburuan jaso duenez, Egañazpiren ahotsa garaiko trikiti zaleek gozatzen zutena zen, baina baita belaunaldi gazteagoak eta bestelako musika eta kultura moldetakoek ere. Hala kantatu zuen Juan Carlos Perez musikariak: “ez zik esan polita ez dela Egañazpi kantatzen, Egañazpi kantatzen...”.

Bikote trinko eta oparoa osatu zuen Sakabirekin, akaso trikitiaren lehen bikote izarra, eta are, akaso lehen pop izarrak gurean, Ez Dok Amairuren bezperatan? Hainbestekoa zuen trikitiarekiko bizi-lotura, Sakabik utzi ondorenean ere, batarekin zein bestearekin jarraitu baitzuen hegan egiten, trikitia zabaltzen.

Liburua eta honekin batera doan 22 kantuz lagundutako diskoa salgai daude EHTEren web orrian.



Egañazpi liburuaren aurkezpen ekitaldia.
Argazkiak: Ibon Errazu



ENERITZ AULESTIA eta AIORA URDANGARIN

Kontzertuetan publikoak “beste bat, beste bat” oihukatzen du? Euskal Herriko erromerietan bisen zeremonia hori gauzatzen da?

Eneritz Aulestia: Guri askotan zalantza sortzen zaigu “beste bat” horiekin, eszenatokitik jaitsi behar ote garen edo ez... publikoak iada badaki beste pare bat kantu prestatuak dituzula jotzeko, “beste bat” horien ondorengo kantuak prest dituzula. Batzuetan publikoari kostatu egiten zaio eskatzen hastea. Hala ere gehienetan egoten da lagun bat edo familiakoren bat publikoan eta beraiek hasten dira “beste bat” eskatzen.

Aiora Urdangarin: Dozenaka “beste bat” kantu jo izan ditugu Laket erromeria taldean. Anekdotak bitxiak ere bai tartean. Herritik nahiko gertu ari ginen erromeria jotzen eta bukatzen ari ginelako hasi zen jendea “beste bat” eskatzen. Beste pare bat kantu joko genituela adostu genuen eta ondoren bukatuko genuela. Bisekoak jotzen hasterako herriko elektrizista koadro elektrikora joan eta argia moztu zigun. Hantxe bukatu zen gure erromeria, “beste bat” kanturik gabe. Normalean bukaerako utzi ohi genituen kantu ezagunak eta jendeak gogoz hartzen zituenak.

Euskadi Irratia. Baipasa saioa. 2024/01/30

AGURTZANE ELUSTONDO

Izan duzu sekula arazorik? Eta emakume izateagatik?

Jendaurrean jotzean ikusten genituen parre txikiak. Ez zen gaur egun bezala. Gaur egun oso normala da edozeinek soinu txikia jotzea, baina garai hartan ez. Jende askok egindako lanagatik soinu txikiak Euskal Herrian bilakaera handia izan du eta beste pertzepzio bat dago, askoz hobea. Tamalez, entzun behar izan ditut *emakumea izateko ondo jotzen duzu, emakumea izateko indar haundiz jotzen duzu* eta bestelako hainbat komentario matxista entzun ditut. Edo ama izan nintzenean soinu jotzeari uzten niola ere zabaldu zen, nahiz eta gezurra izan. Baina aldatzen ari da. Gaur egun emakume asko daude goian, gero eta handiagoa da emakumeen presentzia eta plazan jarraitzen dute ama izanda ere! Eta belaunaldi berrientzako erreferente dira!

Goierriko Hitzak. 2024/02/23

JOSE LUIS ETXEBERRIA XAPRE

Urte hauetan guztietan makina bat erromeria alaituko zenituen.

Erromeriak ere kiosko gainera politak izaten ziren. Gauza asko ikusten ziren. Neskak dantzan eta mutilak dantza eske... Bi aldiz kalabazak jasotako mutila ikusten zen igual orduantxe dantzan hasita eta «pieza bukatu egin behar al diat?». Ba segi egiten nuen. Katxondeo handia izaten zen. Pieza luzea izan zela esaten zidanaren kasuan, «ez dek gustuko laguna topatu» esaten nion. Beste batzuek «ze motza» esaten zuten. Hura gustura zebilenaren seinale.

Goierrri. 2024/03/01

JON EGIGUREN

Aizarnan jaio eta bertan urte asko bizitakoa izanik, gogoan ditut bere seme-alabekin herriko plazan partekatutako garaia; baita erromeria egunetan bere pandero hotsarekin herria alaitutako egunak ere. Zer esanik ez Santa Engraziako bentan egin zituen saioak, udako igande arratsaldeetan bereziki. Sakabi eta Egañazpiren trikiti doinuak irratan entzuteko ere irrikan egoten ginen, Segura edo Arrate irratan egunero piezaren bat entzuteko aukera egoten baitzen. Niretzako gustukoenak beraien trikitiak izaten ziren, hala nola ‘Ehiztarien Gozamina’, ‘Zure Urtebetetzea’, eta beste hainbat pieza. Zumarragako trikitia eta bikote hau gailentzen ziren irratan garai hartan, orain bezalako aukerarik ez baitzegoen. Bailarako erromeria askotara joaten ginen garaia ziren, eta trikitia izaten zen nagusi. Sakabi eta Egañazpi famatuak zirenez, beraiek izaten ziren bailarako festa gehienetan zalantzarik gabe.

Danbolin.eus. 2024/03/02

ILIA MITXELENA FORONDA ETA ENEKO UNZALU GAZTELURRUTIA


Bitxigileak dira Ilia Mitxelena Foronda (1982) eta Eneko Unzalu Gaztelurrutia (1970). Ilia, jaiotzez Erandiokoa, baina Artean bizi dena, *Platinela* izenaren atzean dagoen artisaua da. Eneko berriz, Mañariakoa, *Eneko bitxiak* izenez ezaguna. Beraien denbora eta talentua eskainiz, trikiti zaleek hain estimatuak dituzten soinu eta panderoak ere egiten dituzte beraien bitxietan.

1998an bidaia bat egin zuen Mexikora Enekok, eta han beste bitxigile batzuk ezagutu zituen. Egiten zuten lana gustatuta, berak ere ikas-tea erabaki zuen. Familiatik datorkio artisau sena Iliari: «Nire gurasoak artisauak ziren, larrua lantzen zuten. Txikitatik tailerrean eta azokatan ibili izan naiz; artisauak nire erreferente heldu hurbilenekoak izan dira eta oso gustura bizi izan ditut nire urteak mundu horretan murgildurik. Arte Ederrak ikasten hasi nintzen, baina hirugarren mailan bitxigintza eskola batean sartu nintzen eta ikasketa ofizialak alde batera utzi nituen. Garbi ikusi nuen artisautza zela nire bidea. Gero aprendiz moduan Gasteizko bitxigile batekin egon nintzen lanean; bertan ikasi nuen bitxigintza tailer baten errealitatea. 2008an nire tailerra martxan ipini nuen, Bilboko Alde Zaharreko lokal baten. Orain bitxigintza ikastaroak ere ematen ditut».

Trikiti eta panderoak bitxietara

Enkarguz lan asko egiten dutela aitortzen dute *Eneko bitxiak* eta *Platinelak*. Trikitia izan zen bitxietan Enekok sortu zuen lehenengo musika tresna. «Elik, Josune Arakistain alabarentzako trikiti bat eskatu zidan. Erronka eta ardura, biak batera sentitu nituen, baina ez nuen zalantzarik izan trikiti bat bitxietara ekarri nezakeela. Ordutik aurrera, beste instrumentu batzuk ere eskatu dizkirate eta egin ditut: panderoak, bateria, akordeoia, biolin tronpeta... Josunek berak gerora, oihalik gabeko panderoa eskatu zidan. Horrelako enkargu pertsonalizatuak beti egiten ditut, eta gustatzen zait erronka berriak direlako niretzako».

Iliak erreferente izan ditu pandero-joleak, eta hain gertu bizitako mundua izanik, panderoak bitxietara ekartzea omenaldi moduan hartu du. «Gure baserria erdibituta dago, eta baserri honen beste erdian, Maurizia Aldeiturriaga bizi izan zen. Bere omenez, eta aitaren



partetik nire birramamaren omenez, Igorreko auzo batean bizi zen pandero-jole anonimo bat baitzen, panderoak bitxietan egitea ohorea da niretzat. Bestalde, amaren partetik aitite eta amumarekin Galiziako pandero-joleak ikustea asko gustatzen zitzaidan. Orain pandero ikaslea naiz, nire seme nagusiarekin batera».

Zilarra, pazientzia eta mimoz landua

Bi bitxigileek erabiltzen dute zilarra beraien bitxiak ekoizteko. Enkarguz bada, kasu batzuetan urrea ere erabili du Unzaluk. Ados agertu dira biak, ordu asko pasatzen dituztela tailer-rean, ikusten den azken emaitzaren bitxi preziatu hori esku artean izan arte. Pasatako denbora hori errentagarria izateko, bitxiak saldu egin behar dira, ordea. «Ordu askotako lana da, baina oso gustura egiten dudana. Lehenengo egiten den musika tresna horrek lan handiagoa eskatzen du, tresna ezagutu behar dut, neurriak atera, harreman sakonak lortu tresnarekin... lagun egiten garenean sortu egiten dut» dio Enekok.

Musikariengan harrera

Ez dituela pandero bitxi asko saldu aitortu du Iliak, baina pandero-joleek bere bitxi hau ikusten dutenean argazkiak egiten dituztela konturatu da, eta emozionatu egiten direla. «Polita da emozio horiek nire bitxiek sortzen dizkietela ikustea». Albokak, txalapartak eta txistuak ere egiten ditu *Platinelak*: «Instrumentu hauen soinuek ere barnea mugiarazten didate».

Musikariengan harrera ona sumatu du Enekok. «Bitxia ikusten dutenean berehala nabaritzen duzu nor den musikaria eta nor ez. Ahalegina egiten dut urtero beste musika-tresna bat egiteko eta beti nago prest erronka berri batean sartzeko».

Musikariei askotan entzundako esaldiak izan dira, *etorkizun beltza daukagu!*, *ez da erraza honetatik bakarrik bizitzea!* eta antzekoak. Bitxigileek ere bat egiten dute errealitate honekin. Hala ere, itxaropena ematen diote Enekori bitxietan ekoizten dituen musika tresna hauek: «Lan hau oso aberasgarria izan da niretzako, musika eta bitxigintza elkartu direlako. Biak artelanak dira eta nahiz eta artisautzaren etorkizuna askotan beltz ikusten dugun, horrelako momentuak argi berezia ekartzen dute artisaun bizitzara».

Argazkiak: Iliia Mitxelena eta Eneko Unzaluren bitxiak



UDABERRIA

MARTXOAK

21

EKAINAK

21



700 soinu-jole eta pandero-jole baino gehiago Euskal Herriko Trikitixa Egunean

📍 Iruñea

📅 Apirilak 13

Goizetik Euskal Herri osotik gerturatutako soinu-jole eta pandero-joleak elkartuta, talde bakoitzak egokitutako auzoan egin du kalejira eta hiru kontzertu eskaini dira: San Francisco de Asis plazan Trikitixen taldea, Monasterio Azuelo plazan Miren eta Roberto Etxebarria eta De la Cruz plazan Itzal. Trikitizaleek autobus geltoki zaharra lepo bete dute eta inguruko taberna eta Elkartetara joan behar izan dute beste askok bazkaltzera. Egunari bukaera emateko kalejira erraldoia egin da Udaletxe plazaraino eta bertan goian ikusi daitekeen argazki erraldoia atera da.

Argazkiak: Itsaso Elizagoien / Mainer Jauregi



Debagoieneko Trikitixa Egunak Arrasaten izan du parada

📍 Arrasate

🕒 Maiatzaren 1etik 4ra

Ekitaldi ugari beteta, hiru eguneko egitarau zabalak bete du aurtengo Debagoieneko Trikitixa Eguna. Maiatzaren 1ean, goizean pandero tailerrak eskaini dira Izer eta Iraide Ansorenaren eskutik eta arratsaldean, Maixa Lizarribarrek *Soinuak duena* tailerra eman du. Maiatzaren 3an Vanesa Muelaren kontzertuaz gozatzeko aukera izan da. Maiatzaren 4ko egun handiak eman dio bukaera asteburuari. Vanesa Muelaren perkusio ezberdinen tailerrarekin hasi eta kalejirarekin jarraitu dute eguna. Eguerdian lekukoa Aretxabaletari pasa, Uharkape frontoian bazkaldu, kalejira erraldoia egin eta iluntzeko Iratzar taldearen erromeriak itxi du eguna.



Argazkia: Goiena Arrasate

Hamalagarren edizioa Itziarko Erromeria Eguna

📍 Itziar

🕒 Maiatzak 4

Maiatzeko lehenengo larunbatean ospatu da Itziarko Erromeria Eguna. Zubietako Joaldunak, Itziarko trikiti eskolako partaideak, Itziarko eta Vianako dantzariak, eta erromeria izan dira herrian. Daniel Oiarbide eta Pello Urdangarin; Aitziber Arruabarrena eta Aritz Erasun; Jon Ostolaza eta Rakel Pujana, Nagore Zulaika, Uxue Aranguren eta Sara Osa; eta Elaia eta Jare Eizagirre izan dira txandaka erromeria osatu dutenak.

Markina-Xemeingo helduen IV. Trikiti txapelketa

📍 Markina

🕒 Maiatzak 11

Bi urtez behin ospatzen den Markina-Xemeingo helduen trikiti txapelketak lekua hartu du maiatzaren 11n, Baserri eguneko egitarauaren barruan. Uni frontoia lepo beteta, ondorengo 9 bikoteekin osatu da sailkapena: Xabi Etxaniz Ulazia (Azkoitia) eta Ainara Saizar Zuloaga (Aia); Leire Zumeta Mayo (Anoeta) eta Amaia Arza Garmendia (Añorga); Andoni Oruesagasti Gurrutxaga (Zumarraga) eta Uxue Kerejeta Aramendi (Urretxu); Enaitz Alberdi Alkorta (Azkoitia) eta Elaia Diaz Bero (Astigarraga); Irati Arcelus Olano (Lazkao) eta Mirari Plazaola Torrontegi (Arrasate); Alaitz Roteta Otegi (Zarautz) eta Ander Duñabeitia Urkiola (Iurreta); Jaume Parra Macias (Badalona) eta Hekthor Folk Mahasti Ruiz de Arkaute (Bernedo); Ander Blasco Gromaz (Sopela) eta Jon Ander Azkue Ortiz de Zarate (Getxo); eta Hegoi Petite Mada-riaga (Iurreta) eta Mikel J. Elizaran Mendarte (Iurreta). Trikitixa, porrusalda, fandangoa eta arin-arina izan dira guztiek jotako piezak.



Argazkiak: Ibon Errazu



Azkoitiko III. Trikiti eguna. Argazkiak: Ibon Errazu



Maiatzeko azken asteburua hartu du Azkoitiko III. Trikiti egunak

📍 Azkoitia

📅 Maiatzak 25

Asteburu osoa ekitaldiz beteta, jendetza elkartu da Azkoitian Trikitigiro elkarteak eta Azkoitiko Udalak elkarlanean antolatutako III. Trikiti egunaz gozatzen. Maiatzaren 24an "Azkoitiko Trikitia" erakusketaren irekiera izan da Portaleburun eta ondotik trikipoteoa eta "Errautsak hauspotzen" bideografien laburpen emanaldia Baztartzon. Larunbatarekin, San Martinen elkartu dira trikitilariak, eta hainbat taldetan banatuta, auzoz auzo ibili ondoren, plazan amaitu dute ibilbidea. 150 lagun elkartu dira plazan egin den herri bazkarian eta taldeka elkartuta, erromeria egin dute soinu-joleek arratsaldean.



Argazkia: Aramako Trikitixa Elkartea

I. Trikiti jaialdia antolatu da Araman

📍 Arama

📅 Ekainak 08

Trikiti doinuek Goierriko 200 biztanleko herria jantzi dute ekainaren 8an. Aramako frontoian oholtzara igo dira Josu Albisu, Aitor Letamendia eta Aiora Gorostizu; Alaitz Roteta eta Ainara Saizar; Jon Ostolaza eta Andoni Larrañaga; Intxausti, Arakama eta Larrañaga; Jone Uria eta Motriku; Izer eta Elizagoien ahizpak; eta Aramako trikitilariak. 300 lagundik gora elkartu dira jaialdia ikustera eta 160 lagun inguruk afaldu dute frontoian egin den ondorengo afarian.

Bizkaiko musikari tradizionalak erakusketan bilduta

📍 Getxo

🕒 Irailaren 06tik 24ra

Erakusketa hau Bizkaiko musika tradizionalaren bihotzera egindako bidaia da, bere historia markatu duten mitoak omentzen dituen ibilbidea. Herri musikako funtsezko bost instrumentu ditu ardatz erakusketak: txistua, soinu txikia, panderoa, alboka eta dultzaina. Horietako bakoitzaren adierazgarri diren hiru interpretatzaile aukeratu dira, nahiz eta beste musikari askok ere mereziko luketen bertan egotea. Soinu txikiaren alorrean Albino Ojanguren, Bonifazio Arandia, eta Rufino Arrola hobeto ezagutzeko aukera izan da. Panderoarenean berriz, Felisa Arribaltzaga, Maurizia Aldeiturriaga eta Romualda Zuloaga. Getxoko Romo Kultur Etxean egon da ikusgai.



Bizkaiko musikari tradizionalak erakusketako soinu-jole eta pandero-joleak



ARGITALPEN BERRIAK

TRIKITIXA UROLA ERDIAN (Errautsak hauspotzen proiektua). Bideografia liburua: Trikigiro eta Kulturaz kooperatiba

Errautsak hauspotzen izenpean, orain dela urte batzuk Urola Erdiko trikitiari balioa emateko proiektua jarri zuten martxan Trikigirok eta Kulturaz Kooperatibak. Joan den mendeko 60ko eta 70eko hamarkadetako trikitilariei buruzko informazioa biltzen aritu dira azken urteetan. Sei urte pasako lana eskuragarri dago 58 bideografia eta 77 elkarrizketatu (hamabi ordutik gora) jasotzen dituen liburuxkan.



Errautsak hauspotzen bideografia liburua.



GALBAHEA:

ANDOITZ ANTZIZAR

«Garai jakin baten kontakizuna beste batzuek egin digute, eta horregatik nahi genuen gure gain hartu. Askotan, gutxietsia izan da trikitia, baserritarren kontua balitz bezala, eta baserritar izate hutsa ere txarra balitz bezala. Gure zoritxarrerako, gizonezkoak izan dira guztiak, emakumeei bigarren mailako rola eman zaielako, panderoarena; eta panderoa bera ere gutxie-tsi egin da».

Berria. 2024/03/31

ITSASO ELIZAGOIEN BIZENTE

Euskal Herriko Trikitixa Elkartea egoera onean dago? Zer bide egin du elkarteak?

Azken urteotan elkartearen lan egiteko modua aldatzen ari da. Egungo egoerari eta eskaerei behar duten erantzuna ematea da helburuetako bat, gure aitzinekoek eman zutena bildu behar dugula atzenu gabe. Institutuzio publikoetatik dirulaguntzak hartzen baditugu ere, bazkideen babesa hagitz beharrezkoa da. Euskal Herrian trikitixa edo pandereta jotzen dutenen, edo bertzerik gabe, zaleak direnen kopurua bazkide direnekin konparatzen badugu, oraindik hagitz urruti gaude. Elkartea egoera onean badago ere, indartzeko beharrezkoa da jende hori elkartera nolabait hurbiltzea eta bazkide egitea. Bertzetik, elkartearen handitzeko momentua ailegatu dela ohartuak gara eta 2024ko helburuetako bat bi liberatutik hirura pasatzea da.

1972an Gipuzkoan zenbait trikitilarik elkartzeko zuten beharrez oharturik, Sakabi eta Egañazpi trikitilarietako omenaldia antolatu zieten Usurbilen [Gipuzkoa]. Hori izan zen trikitilariak elkartzen hasi ziren urtea. Hala ere, ofizialki 1990. urtean sortu zuten elkartearen. 1996an boluntario talde baten eskutik, gaur egun egiten den zabaltze lana hasi zuten. 2000an lehenbiziko kudeatzaileak sartu ziren ordura arte boluntarioek egindako lana indartuz. Elkartearen historia biltzen duen liburua 2024an argitaratuko dugu.

Erran.eus. 2024/04/07

IZARO INSAUSTI

«Erromeriak gutxituz, dantza jarduna ikuskizun eta lehiaketetara bideratzen ari delakoan nago. Dantzariak dantzan eta ikusleak begira, herria dantzako ikusle pasibo bihurtuz. Beti iruditzen zait kalejira batean dantzatzeko zerbait magikoa sortzen duela. Elkarri eskutik heldu eta saltoka aritzean poztasuna sartzen da gorputzean eta hala islatzen da kalejira osatzen dutenen begi eta irribarreetan. Adin, genero, jatorri... bereizkeriarik gabeko kalejiran batera zubiak eraikiz ilara amaigabeetan. Eta, zuk, probatu al duzu?»

Goiberri. 2024/04/15

EDURNE ITURBE

Zein da trikitilari batek bere erreperitorioan eduki behar duen kantu bat?

Kantu bat aukeratzea zaila da. Eduki beharko luke tokian tokiko kantu sorta. Erromeria baterako, erromeriatako kantuak adibidez; kontzertu batean erromerietako fandango bat ez nuke joko. Iruditzen zait trikitilari bat ikasten hasten denean, jakin beharko lukeen hasierako erreperitorioa fandango-arin arinak izango liratekeela. Gauza moderno eta landuagoak egongo dira, baina kulturalki trikitilari batek hori jakin beharko luke. Bere jatorria nondik datorren ulertzeko, formatu hori. Kantu bat ez nuke esango, leku bakoitzak zerbait eskatzen du... kalejirak, fandango-arin arinak, korrido bat, pasodoble bat, kanturakoak, trikitixa-porrusaldak... erreperitorioan eduki beharrekoak dira.

Tolosaldeko ataria. Hauspo artean. 2024/04/20

GENTZANE MARTINEZ DE OSABA

Zer da zehazki Aire! dokumentalak erakusten duena? Zer kontatu nahi izan duzue?

Mauriziaren irudia gaurko egunera ekarri nahi genuen, baina argi genuen ez genuela biografia edo biopic bat egin nahi. Beraz, nola? Gazteen bidez, haiei hitza emanda. Alegia, emakume haren garrantziaz jabetu zitezela, bizi izan zuen garaia ezagutu zezatela eta garai hartan apur bat murgildu zitezela. Dokumentalaren mamia, lan guztia hasieratik bukaerara zeharkatzen duena, Maurizia da. Baina badaude beste bi geruza ere. Batetik, musika tradizionala. Haren inguruko aurreiritzi batzuk astindu nahi genituen, erakutsiz gazteek ere musika tradizionala egiten dutela, oso modu ezberdin eta energiaz betean. Eta, bestetik, gazte-jendea. Haiei hitza eman nahi genien, hainbat gairen inguruan esateko dutena entzun nahi genuen, haien pentsamenduak, sentimenduak eta abar azaleratu.

Kulturklik. 2024/06/05

IKER IRRIBARRIA

Aspalditik zabiltza panderoa jotzen?

Bizitza guztian gustatu izan zait trikitia. Baina panderoarekin denbora pixka bat eduki nuen hasi nintzen, pandemian alegia. Etxean sartuta geratu ginenean, «hau da garaia ikasteko» pentsatu nuen. Gustua hartu nion eta egunetik egunera ea hobetoxeago jotzen dugun. Egia esanda, ilusio handia da niretzat. Soinuarekin dabil Ekhi. Moldatzen ari gara pixkanaka-pixkanaka. Ilusio berezia egiten dit herritarrekin jotzea, baina are handiagoa anaiarekin jotzea.

Goierriko Hitza. 2024/06/05

IBON ERRAZU

«Errautsak hauspotzen proiektuaren asmoa hamar-hamaika elkarriketa grabatzea eta dokumentaltxo bat egitea zen. Baina gerora informazioa gehitzen, proiektua zabaltzen eta hasierako ideia moldatzen joan gara. Nahi baino gehiago luzatu zaigu lana. Horregatik, benetan eskertzen dugu proiektuaren sustatzaileek erakutsi duten konfiantza eta pazientzia».

Azkoitia Guka. 2024/06/06



100 urte Maltzeta soinu-jolea jaio zela

1924ko ekainaren 16an jaio zen Juan Garate Alkorta *Maltzeta* trikitilaria.

Azkoitiko Urrategi bailarako Maltzeta-Etxetxo baserrian jaio zen Juan. Musika txikitatik ezagutu zuen etxean, aita eta osaba dultzaineroak zituelako. Gaztetxo zela trikitia ezagutu zuen inguruan egiten ziren erromerietan, Irukurutzeta eta Pol-Polekoetan batez ere. Manuel Sodupe *Gelatzok* liluratu zuen gehienbat gaztetan. Ikazkintzako laguntzaile gisa lan eginez irabazitako diruarekin erosi zuen lehen soina, Donostian, 17 urterekin.

Joxe Mari Aranbarri *Madarixa Txikixe* eta Kandido Beristain *Norberta* izan zituen lehen soinu irakasleak. Jazinto Rivas *Elgeta* ere hartu zuen denboraldi batez irakasle. Eugenio Alberdi *Zabaleta* auzokidearekin batera hasi zen inguruko erromerietan jotzen. Faustino Azpiazu *Sakabirekin* adiskidetasun handia izan zuen, eta hark egin ezin zituen plazak Maltzetari uzten zizkion askotan.

Pandero-jole askorekin aritu zen, baina garai batean Luis Alberdi *Zabale* izan zuen laguntzaile nagusi, eta geroago haren lehengusua, Ramon Zubizarreta *Landakanda*.

Bere alaba Mamani panderoa jotzen irakatsi zion, eta artean umea zela, alaba aitaren ondoan oholtzara igotzen hasi zen.



100 urte Maltzeta jaio zela

1982an Azkoititik Hondarribira joan zen bizitzera familiarekin eta soina irakasten aritu zen alabarekin batera. 2006ko irailaren 10ean hil zen, biriketako gaitz baten ondorioz.

Hiru bakarkako disko argitaratu zituen: Maltzeta aita-alabak (IZ, 1981), Eman neri eskua (Elkar, 1996) eta Negarrez abesten dut (Elkar, 2001). Kolektiboak berriz: Euskadiko Trikitixa Txapelketa Azpeitian (IZ, 1980), Euskadiko Trikitixa Txapelketa Donostian (IZ, 1980) Betiko trikitixa (Elkar, 1994) eta BETIKO TRIKITIXA. Askoren artean (Elkar, 1994).



Ez da Trikitilari Gazteen Txapelketarik jokatu

Azken urteetan ez bezala, egoera berria eman da aurtengo udan. Soinu-jole eta pandero-jole gaztetxoek ez dute txapelketarik jokatu. Antolatzaileen ahaleginak ikusi dira, hala nola, Getaria, Orio, Elorrio eta Zarautzek txapelketan parte hartzeko deialdia eta aukera eskaini zuten. Izen emate eskasagatik ezin izan dira txapelketak aurrera eraman.

Bi belaunaldien arteko eztabaidak jasoz sortu da 'Zubiak' podcasta

🔊 Uztaila

Belaunaldi batetik bestera aldaketak egoten dira, baina batzuetan, uste baino gutxiago. Bi belaunaldi elkartzea eta bateratzen dituen horri buruz eztabaidatzea da Zubiak podcastaren helburua. Garazi Belasko zuzendariak Euskal Herriarekin harremana duten gaiak aurkitu nahi izan ditu. Horrela, lehen bost saioetako bakoitzean gai bat jorratu dute: LGTBI kolektiboa, kirola, musika, folka eta sukaldaritza.

Gonbidatu gazteak aukeratzen du lekua eta gonbidatu helduagoak badaki nor edukiko duen aurrean, baina gazteak ez. Horrela grabatu dute Maixa Lizarribar eta Hekthor Folkek, folkaren inguruko saioa, Hekthorren etxean.



Maixa Lizarribar eta Hekthor Folk, 'Zubiak' podcastaren grabazioan.
Argazkia: ZUBIAK

"Erromerian" saioa eskaini du ETB1ek udan

📍 Bermeo, Zumarraga, Larrea, Santurtzi, Galdames, Urbia eta Lakuntza

🔊 Uztaila eta abuztua

ETB1 kateko "Herri txiki, infernu handi" saioaren tokia hartu du uztaila eta abuztuan Anabel Arraizak eta Agus Barandiaranek aurkeztutako "Erromerian" saioak. Euskal Herrian ospatzen diren erromerien izaera eta jatorria ezagutaraztea izan da saio honen helburua; familia belaualdi desberdinen istorioak, herritarren arteko elkarlana eta beste hainbat kontu uztartuz.

Uztailaren 7an estreinatu da saioa Gaztelugatxeko erromeriari buruzko atalarekin eta atzetik etorri dira Zumarragako (Gipuzkoa) Santa Isabelen erromeria, Larreako (Araba) Barte Eguna, Santurtziko (Bizkaia) karmenak, Galdamesko (Bizkaia) madalenak, Urbiako (Gipuzkoa) San Inazio Eguna eta Lakuntzako (Nafarroa) Pertza Eguna.




Argazkia: Erromerian saioa ETB1

24 orduz dantzan Maurizia Aldeiturriaga pandero-jole bizkaitarra jaio zela 120 urte bete direla ospatuz

📍 Beasain

🕒 Irailak 20 eta 21

Beasain egun oso batez dantzan jartzea izan da Ostadar dantza taldearen helburua. Dantza eta musika ardatz hartuta, Ostadar dantza taldearen 40. urteurrena eta Maurizia Aldeiturriaga pandero-jole bizkaitarra jaio zela 120 urte betetzen direla ospatzea izan da aitzakia. Izan ere, Mauriziaren irudiak, dantza taldea egoki definitzen duela ikusi dute: herriak sortua herriari eskaintzeko beharra eta nahia, gure hizkuntzan gure kultura dantza eta musika bidez transmititzea, eta berdintasunerantz eta aniztasunerantz abestu eta dantzatzeko aldarria. 15 minutuko txandetan, musikari eta dantzari ezberdinek herria alaitu dute, etenik gabeko musika eta plaza dantzen kate bat osatuz: fandango eta arin-arinak, jauziak, kalejirak...



24 orduz dantzan mosaikoa



ARGITALPEN BERRIAK

GEURETIK: Mirari eta Aintzane

Lehenengo diskoa kaleratu zutenetik 8 urte pasata, bigarrena eskainiz datoz Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña. Walter Tuzzeoren gidaritzapean Eibarko LegarRec estudioan grabatutako lanak, estilo ezberdinetako 14 abesti eskaintzen ditu. 2019an grabatzen hasitako disko honetan, Mirari eta Aintzanek lagun izan dituzte Walter Tuzzeo, Eugenio Gisasola *Lutxurdio*, Zalao Zenarrutzabeitia, Miren Errasti, Agurtzane Mujika eta Iñaki Ortega.



Geuretik diskoaren azala



ANDER ETA XABI MALBADI

Aipatu bezala, Iñaki, aita, trikitilari eza-guna izan zen bere garaian. Zuek begiak irekitzerako soinua begien aurrean izan zenuten.

Ander: Aitaren aitzakian aritzen gara musikaz, baina ama ere musikaria da. Flauta jotzen du berak, eta musikaren munduan ezagutu zuten elkar gainera. Sei urte genituenean, aita hala-xe bota zigun: «nahi duzuen instrumentua jo, baina zerbait jo behar duzue!». Aita-zulo nintzenez, eta aita soinua jotzen zuenez, nik ere soinua aukeratu nuen.

Xabi: Txikiak ginela, ez daukat oroitzapenik erromeriatara eramaten gintuztenik. Gerora, agian, bai, baina etxetik kanpo ez genuen beste erreferentzia handirik. Aukeratzeko garaian ez genuen aukera handirik izan. Gaur egun, agian, aukera gehiago dago musika eskolengatik. Hala ere, denborarekin, biok ikasi genuen jotzen, bai soinua, eta baita panderoa ere. Azken nagusien txapelketan, ni soinuarekin aritu nintzen, eta Ander aldi berean panderoarekin.

Ataria.eus. Hauspo artean 2024/06/27

FELIPE ALTUNA

Soldadutza aipatu duzu lehen. Afrikara soinua eraman al zenuen?

Joan, gabe joan nintzen, baina han euskaldun mordoa geundela ikusita, Azkarri eskatu eta Cadizeraino eraman zidan geroxeago. Cadizen juratu genuen bandera, eta handik Ceutara joan ginen. Azpeitikoak, bizkaitarrak... euskaldun asko ibiltzen ginen kuadrillan. Gauetan tertulia eta kantu aldi bat egiteko aukera egoten zen, eta gustura. Soinuarekin egon nintzen soldadutzan, eta probetxua ateratu nion. Pedro Azkoitia izeneko euskaldun bat zegoen Ceutan; jaun eta jabe zen han. Frontoiak, hogeitabat jotetxe, okindegiak... zeuzkan. Militarrentzako ogia dena berak egiten zuen. Azkoitikoa zen. Orduan apaiz euskaldun asko joaten zen hemendik hara, misioetara bidean. Ceutan geratzen ziren, gero Afrikara banatzeko. Azkoitiak bazkariak eta afariak ematen zizkien, eta horietarako hots egiten zidan: 'Hi, Felipe, soinuarekin etorri behar duk!'. Baimena behar nuela kuartelean... 'Ez daukak baimena eskatu beharrik, hori konponduta zago'. Koronelek ere agurtzen zuten hura. Casa Pepe izeneko jotetxean ematen zituen oturuntzak, eta hara joaten nintzen ni soinu jotzera.

Goiberri. 2024/06/28

OILAR BELTZAK MUSIKA

TALDEA (Xabier Arakama, Imanol Intxausti eta Iñaki Larrañaga)

Noiztik zabilzate musika munduan? Zer estilotako taldea izango da Oilar beltzak eta nondik dator izena? Diskoa grabatzen ari zarete?

40 urte izango dira iada, 9-10 urte genituenean. Orduan ikasten hasi eta segituan hasten ginen jotzen. Guztiak erromeria mundutik gatzenez, hortik sortu da Oilar beltzak taldea.

Bere sinpletasunean baina zerbait berezia egin nahi dugu; gurea oso prozesu naturala izan da. Oraindik ondo definitu gabe daukagu gure estiloa, baina guretik egin nahi dugu. Gehiena euskaraz joango da, kultura ezberdinetako kantuek nahastuz.

Izenarena afalondo bateko kontua izan zen. Jaialdi baterako hiruok prestatu behar genuen saioa. Rantxera bat erdi prestatua geneukan "Gallo negro" kantuen bertsioa. Nahiko simbolikoa izan zen baita ere, denok dakigu Mexikon oilar bat zer den. Hortik etorri zen izena. Orain kantu hau Pottoki estudioan grabatu dugu Fredi Pelaezekin. Gaur egun diskoak oso-rik grabatzea, nahiko atzeratua geratzen ari dena da. Oraingo tendentzia berrietan abestiak banaka grabatzen dira eta horiek publikoari banaka eskaini. Efektu hobea edukitzen du horrek bai publikoarentzat baita taldearentzat ere. Argi gehiago ikusten dute kantuek modu honetan.

Segura irratia. 2024/07/10

INAZIO OLANO DJ OIXANI

Jende aurreko presentzia ere ikasi behar da, ezta?

Elizan urte pilo batean monagillo izan nintzen, eta han ikasi nuen hori. Gu baserritarrek gara, eta orduan oso lotsatiak ginen. Umetan hitz totel ere egiten nuen. Jende aurrean elizan irakurtzeak-eta asko lagundu zidan. Anaia soinuarekin eta ni panderoarekin ere ibiltzen ginen, batetik bestera. Panderoa Eleuterio Tapiarekin ikasi nuen. DJ lan honetan hasteko irrika izan zen, beti eduki dudalako gogoia erromeria bat egiteko. Beti. Eta trikitiarekin fundamenturik nola ez dudan egin, musika jarritz bete dut nire ametsa, astebururo.

Goierriko Hitza. 2024/07/10



UDAZKENA



Tolosaldeko III. Trikiti Eguna

📍 Tolosa

🕒 Urriak 5

Udazkenarekin batera, Hauspotuz Tolosaldeko Trikiti Elkartek antolatuta, Tolosaldeko III. Trikiti Eguna ospatu dute Tolosan, eskualdean trikitiaren mugimendua indarberritzen jarraitzeko asmoz. Egun osoko festa izan da, eta bertako nahiz inguruko ia 200 trikitilari eta trikiti zale elkartu dira. Lopez Mendizabal pasealekuan jarri dute hitzordua, eta bertan egin dute hamaiketakoa. Ondoren, kalejiran atera dira, talde txikitan banatuta. Sorpresaz beteriko bazkariaren ondoren egunari amaiera emateko, kalejira erraldoia egin dute.



Tolosaldeko III. Trikiti Eguna. Argazkia: Oihane Egurtza

Urola Erdia kalera atera da Trikitigiro eguna ospatzera

📍 Azpeitia

🕒 Urriak 18

2024ko Trikitigiro egunak Azpeitik kaleak bete ditu aurretik espero zen moduan. Trikiti ikasle eta irakasleak ilusioz atera dira kalera ikasturtean zehar ikasitakoa jendaurrean jotzera. Ehunka soinu-jole eta pandero-jolek kaleko itzuliak bukatuta, talde argazkia atera eta Sanagustin kulturgunean afaria izan da, ondoren erromeria eta festarekin goizaldera arte jarraituz.



Argazkia: GUKA

Trikitixaren historia jasotzen duen liburua argitaratu du Euskal Herriko Trikitixa Elkartek

📍 Azpeitia

🕒 Urriak 12

Laxaro Azkune eta Haritz Garmendia idazleek 50 urte baino gehiagoz pasatakoak jaso dituzte trikitiaren historia jasotzen duen liburuan. "Euskal Herriko Trikitixa Elkartea, 50 urte eta gehiago" liburua urriaren 12an aurkeztu da Azpeitian. Basazabal Jauregian elkartuta, Euskal Herriko Trikitixa Elkartera bisita egin eta Sanagustin kulturguneko prentsurrekora joan dira bertaratutakoak. 2022an Trikitixa Elkarteko bazkide zirenek etxean jaso dute liburua.



Trikitigiro eguna. Argazkia: Ibon Errazu

Severen Urteaga Oria “Xebe” zendu da

📍 Zumarraga

🕒 Azaroak 09

Zumarragako Trikitixako pandero-jole izandako Severen Urteaga Oria 91 urte-ekin zendu da.



Joxe Urteaga Oria eta Severen Urteaga Oria, Antion

Oñatiko trikiti jaialdia

📍 Oñati

🕒 Azaroak 23

2024an ere trikiti zaleak Santa Ana antzokira sartu ezinik geratu dira, aretoa lepo bete baita Maddi eta Izaro Iñurra-tegi eta Mirari Plazaola; Miren eta Roberto Etxebarria; Naiara, Izarra eta Ostolaza; Lierni, Arbeo eta Mireia; Txino eta Garixe; Leonen Orroak eta Naizena ikusteko. Ohiko lez, jaialdiaren ostean trikipotea eta afaria izan dira.



Argazkia: Ibon Errazu

Aiako I. Trikiti jaialdia

📍 Aia

🕒 Abenduak 14

Trikiti doinuek jantzi dute Aiako probalekua. Arkaitz Allur, Izer, Alabier eta Antton Sarobe; Epelde, Lutxurdio, Laja II eta Haritz Garmendia; Andoni Oruesagasti eta Uxue Kerejeta; Enaitz Alberdi eta Julen Rueda; eta Alaitz Roteta eta Olatz Zubimendik hotzari beldurrik gabe, arin astindu dituzte behatzak Aiako Dema plazan. Antolatzaileek omenaldia egin nahi izan diete Aian urte luzez trikiti eta panderoa erakusten aritutako Alaitz Roteta, Iosu Arrizabalaga Izer, Antton Sarobe, Joxe Antonio Azkonabieta, Aina Saizar eta jaialdi egunean Aiara gerturatzerik izan ez zuten Iker Allur eta Asier Gozategiri.



Argazkia: Ibon Errazu

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen berriak

TRIKITI UDALEKUAK

2017an hasi zen Elkartea trikiti udalekua antolatzen. 12-15 urteko gaztetxoei eskaintzen zaie bertaratzeko aukera eta erantzuna ezin hobe izan ohi da. Urtero-urtero arrakasta handia izaten du eta beraz, aurreko lehen aldiz, bi txanda antolatzea erabaki da. Ohi bezala, Asteasuko Otabardi aterpetxean elkartutakoek elkarrekin soinua eta panderoa jotzeaz gain, begiraleen eskutik ekintza ezberdinak burutu dituzte eta baita ikastaro ezberdinak jaso ere; hala nola, Eneritz Aulestiak eskainitako perkusio ikastaroa edo Gaizka Peñafielen soinu txiki ikastaroa.



Argazkiak: Manex Torrealdei

BERTSIO LEHIAKETA ETA "HARITIK" DISKOA

Iaz eta aurreko lehiaketara aurkeztutako lanetatik 13 aukeratu ditu EHTEko zuzendaritzak "Haritik" diskoa osatzeko. Euskal abestiaren bertsioak (soinu txikiz eta panderoz soilik jotako abestiak) bildu nahi izan dira bertan eta estilo eta formatu ezberdinetako kantez osatu da diskoa. Grabaketa uztailan zehar burutu da Peio Gorrotxategiren Ereñotzuko AIEKA estudioan eta Iker Goenaga aritu da ekoizpen lanetan. Diskoa elkarteko webguneako denda atalean erosi daiteke.



Argazkia: Egoitz Bengoetxea



Argazkia: Aratz Olaizola

NAIZ ETA LEITZAKO KARRAPE IRRATIAKOLABORAZIOAK

2023ko irailean hasi eta 2024ko ekaina bitartean, NAIZ eta KARRAPE Irratietan, 25 saio inguru emititu ditu EHTEk zuzenean, gutxi gorabehera 30 minutuko iraupena izan duelarik saio bakoitzak. Grabaketa hauek, NAIZ Irratian Sara Iriarte, Ekiñe Zapirain eta Oihana Azkue-ekin, eta Karrape Irratian Unai Zabaletarekin burutu ditu saio hauek prestatzeko ardura izan duen Andoitz Antzizarrek. 2024ko irailetik aurrera berriz, NAIZ Irratian bi astez behin jarraitzen du saioak eta Karrape Irratian asteko trikiti agenda eskaintzen da ostiralero.

MAURIZIAREN KOMIKI LIBURUAREN AZKEN ATALAK

Ikastolen Elkartarekin elkarlanean 2025.urtean argitaratuko da Maurizia Aldeiturriagaren komiki liburua. Lehen atala 2022ko abenduan argitaratu zen eta ordutik beste 5 izan dira urte hauetan Xabiroi aldizkarian irakurri ahal izan ditugunak. Garbiñe Ubedak idatzi du gidoia eta Ekaitz Agirre, *Garluk*, izan da marrazkigilea. Datorren urtean beraz, azken atalak argitaratzearekin batera amaituko da komiki liburua.



EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA, 50 URTE ETA GEHIAGO: Laxaro Azkune eta Haritz Garmendia




2022an ospatu zituen Euskal Herriko Trikitixa Elkartek (EHTE) urrezko ezteiak. Data esanguratsu hori aitzakia bikaina izan zen orain arte egindako bidearen inguruan hausnartzeko. Dena dela, proiektu honen abiapuntua ez zen efemeride kontua izan. Aitzitik, lehenagotik sentitu genuen gisa honetako lan bat egiteko beharrezina.

Egoitza aldaketarena izan da azken urteetan elkartek hartu duen erabaki nagusia. 2021ean, bi hamarkada eta gero, elkartea Zarautzik Azpeitira lekualdatu genuen. Ez zen egun batetik bestera hartutako erabakia izan. Adostasun zabala lortu behar zen aurrena. Izan ere, bost hamarkada hauetan ehunka dira elkartek honen inguruan trikitiaren mesedetan lanean aritu diren pertsonak. Ohore handia da aurrekoen lanari jarraipena ematea, baina baita ardura ere. Hor kokatzen da egitasmo honen abiapuntua.



ROMUALDA ZULOAGA. Panderoaren bidaia hilezkorra: Gontzal Carrasco

"Narruzko uztai txindaduna eskuartearen hartuta bazter guztiak astindu zituen pandero-jole nekaezina izan zen Romualda Zuloaga. Hura lako gutxi ikusten zen sasoiaren bidea gura barik egin zuen aparteko koplaria. Musikari nekaezina, euskal kulturarentzako urterik latzenetan trikitixa atzerrian erakustera heldu zena. Herri-kulturarenganako zeukan grinak oraindik gogoratzekoak diren irri eta animoak eragiten zizkion. Panderoaren bizipoza zen Romualda". Euskal Herriko Trikitixa Elkartek, Soinuaren Liburutegia bildumako 17. alea aurkeztu du azaroaren 29an Galdakaon. Bilduma honetako lehen emakumearen biografia, "Romualda Zuloaga, panderoaren bidaia hilezkorra" liburuan jaso da, Gontzal Carrasco historialariaren eskutik.



HARITIK: Euskal Herriko Trikitixa Elkartea

EHTEk antolaturiko bertsioen lehiaketatik sorturiko diskoa da "Haritik" eta bertan, egile ezberdinen estilo ezberdinetako 13 kantu bildu dira: "Mundua ala gu", "Paradisu zinema", "Nahiko Larri", "Aitormena", "Baga, biga, higa - Baga, biga, klik!", "My flower is different", "Itxaropena", "Xiberuan ere fandango", "Kol-dobike", "El hotel azul", "Euskal Rock&Roll", "Maravillas" eta "Etxebitarte". Diskoan parte hartu dutenak berriz hauek izan dira: Manex Torrealdei eta Kattalin Zubizarreta; Agosti Aranburu eta Iker Barrena; Xabier Malbadi eta Etxahun Urkizu; Kristina Solanoren ikasleak; EinGo eskolako ikasleak; ZarautzTRIKI; Iker Allur eta Jokin Tolosa; eta Unai Zabala.



SOINU GORRIA: Xabi Aburruzaga


Hiru urteko lanaren fruitua da Aburruzagaren "Soinu Gorria" liburua. Liburu honek, 20 piezen partiturak eta azalpen didaktikoak eskainiz, musika tradizionalaren eta berrikuntzaren arteko lotura erakusten du, bai hasiberrientzat, bai musikari profesionalentzat. Abesti bakoitzerako baliabide didaktiko eta lagungarriak eskaintzen ditu, musika interpretazioaren ikaskuntza errazteko. QR kodeen bidez Xabi Aburruzagak berak pieza bakoitza nola jotzen den azaltzen den bideoetara sarbidea ematen da. Horrez gain, kantuen inguruko testu eta azalpenek abesti bakoitzaren testuingurua eta sormen-prozesua hobeto ulertzen laguntzen dute.



KORRONTZI BAND: Agus Barandiaran




Agus Barandiaran buru duen taldeak hogei urte bete ditu aurten, eta, urtemuga ospatzeko, disko bikoitza grabatu dute Bilboko Udal Musika Bandarekin. Xabier Zabalak egin ditu kantu guztien moldaketak, eta Elkarrek argitaratu du lana. Kolaboratzaile bereziak ere badaude diskoan, eta horien artean dago Xabier Amuriza, zeinak aspalditik hartu duen parte Korrontziren musikan, izan koplak idazten, izan haiekin abesten. Korrontziko taldekideak —Barandiaran, Ander Hurtado de Saratxo, Kike Mora, Alberto Rodriguez eta Dani Conde— eta bandako musikariak batuta, 60 lagun baino gehiago izan dira kantuak grabatzen.



AMAINEMAN: Josune Arakistain

Hamar urte eman zituen Josunek Huntzako abeslari, eta, orain, bakarkako ibilbideari hasiera eman dio. Lehen diskoa kaleratu du, hainbeste urtez jo duen trikitia

eta bere herrian askotan entzun duen musika elektronikoa uztartuz: Amaineman. Plataformetan daude diskoko 11 abestiak jada, baina sorpresa bat gorde du Sunek diskoa erosten dutentzat: soilik han entzun ahal izango den kanta bat gehiago ere badu formatu fisikoak. Abesti bakoitzak sortutako momentuan musikariak zituen hausnarketak irudikatzen ditu. Hitzetan, tradizioa, emakumeen ahalduntzea, bizitza arrunteko gaiak eta aldaketak aurkitu daitezke, besteak beste. Askorentzat, elkarrengandik urrun daude trikitia eta elektronika, baina Sunek hasieratik izan zuen biak nahasteko ideia. Jimbo Paez ekoizlearekin elkarlanean sortu du lan hau.



BAT, BI, HIRU KANTU. IGUAL LAU: Ines Osinaga

Bideo entzunaldi kolektibo kontzeptua asmatu dute, "Bat, bi, hiru kantu. Igual lau" definitzen saiatzeko. Egunerokotasunaren apropiazioa eginaz eta artea, hura kontsumitzeko ohiturarik ez dagoen lekuetara eramateko akzioa muinean izanik, lokalizazio desberdinetan eginiko performance sorta da dokumental musikal hau. Dokumental hau Ines Osinaga sortzailearen lanik pertsonalena eta kolektiboena den #itsasoadabidebakarra proiektuaren ikus-entzunezko spin-off-a da eta Xerra Estudioak zuzendu du.

BIDEAN ZUEKIN: Etxebarria aita-seme trikitilariak



Etxebarria aita-seme trikitilariak "Bidean zuekin" izeneko diskoa argitaratu dute, beraien hirugarren lana. 10 abestiz osatutako diskoa da eta bertsioak eta abesti propioak txertatu dituzte. Trikitia eta panderoa dira instrumentu nagusiak eta euskal estiloari eutsi diotela azpimarratu dute. Hala ere, rantxerak, rock doinuak eta baladak ere entzun daitezke.



BERROGEI ZERO LAU I: Miren eta Roberto Etxebarria

Roberto Etxebarriaren ibilbideari keinua egingen dion 13 trikiti doinuaz osatutako lana da. Berrogei urte bete ziren iaz Roberto trikitixa jotzen hasi zenetik, bidean 4 belaunaldi elkartuz. Rufino Arrola maisu izandakotik hasi, gerora Kepa Arrizabalaga pandero-jole eta bidelagunarekin 20 urtetako ibilbide oparoa egin, Robertok bere belaunaldiko kideekin jarraitu eta azken urteetan Miren alabarekin joz. Transmisioa eta tradizioa; sorkuntzako trikiti pieza berriak, eta hasiera haietan ikasitakoak daude lan honetan uztartuta.

"Garena" lana berriz, trikitixa, panderoa eta ahotsez gain, gitarra, kontrabaxua, mandolina eta whistle-ez lagundutako singlea da. Lp-a osatzen duen bigarren kantua berriz, Miren eta Roberto Etxebarriaren aurreko lanen ildo jarraituz, ahots eta pandero hutseko kantua da.



JOSEBA TAPIA

Trikitia sartu da, lehen aldikoz, Ipar Euskal Herriko kontserbatorioan. Eta irakaslea Joseba Tapia izanen dute izena eman duten zazpi ikasleek. Gazteenak 15 urte ditu. Batzuk zaletasunez heldu dira hobetzeko, besteak kontserbatorioko diplomaren zikloa egiten ari dira.

«Baionara heldu diren trikitilariak, jada oso ikasiak datoz trikitiaren testuinguruari eta teknikari buruz; belarri oso onekoak dira, eta oso zaleak. Datozen belaunaldi berriekin kontaktuan egoteko aukera da, eta, nola ez, kurtsu hau ez da bakarrik teknikaz ari; osotasun batetik dena kritikatzan dugu. Baita kontserbatorioa bera ere».

Berria.eus. 2024/09/21

XABIER BERSALUZE LETURIA

Aplikatuko zenuke Eleuterio Tapiaren irakasteko modua egungo musika eskolatan?

Bai, zalantzarik gabe. Nik aurrez aurreko harremanari garrantzi handia ematen diot, eta uste dut belarriz eta begiz ikasi behar dela instrumentu bat jotzen. Egia da solfeoak oinarria ematen dizula, baina, azken batean, solfeo musika idatzi eta gordetzeko modu bat baino ez da. Gaur egun, astakeria handiak egiten dituzte.

Berria.eus. 2024/09/23

ARKAITZ APALATEGI

20 urteko ibilbidean, 'Bizi!' diskoa ere argitaratu da, GOIERRIKO HITZAREN eta 'Goierritarra'-ren urteurrenen harira, Goierriko musikarien, trikitilarien eta bertsolarien laguntzarekin.

«Lan handia izan zen. Goierriko trikitilariak elkartu eta bakoitzak kanta bat grabatzea zen asmoa. Hitzak egiteko, eskualdeko bertsolarien laguntza izango zuten. Hainbeste jendek parte hartuko zuen disko bat grabatzea ez zen erraza izan. Makina bat bilera eta telefono dei egin izan ziren tartean. Dena den, esan beharra daukat, proposamena egin genien denek parte hartu zutela, guztira 14 bikotek. 1.000 inguru kopia argitaratu genituen, eta esango nuke, den-denak saldu zirela. Goierriko Hitzaren egoitzan oraindik gordeta dago kopia bat. 16 kanta biltzen ditu: Gari eta Iñakik, Elortza anaiek, Elustondo anai-arrebek, Aitor Sarriegik, Urretxu-Zumarragako bertso-eskolak, Dorronsoro eta Ezkerrak, Xapre eta Furrielak, Iker Zubeldiak, Iban Urdangarinek, Eurne

Iturbek, Olarte anaiek, Lutzurdio eta Aitziberekek, Dani eta Peiok, Josune eta Aitziber ahizpek, ... eta beste askok jarri zuten interesa eta inplikatu ziren».

Goierriko Hitza. 2024/10/03

LAXARO AZKUNE ETA HARITZ GARMENDIA

«72an trikitilari bikote bat omendu zuten Usurbilen [Gipuzkoa], baina, finean, komunitate oso bat zen omendutakoa. Gizartean bazegoen kultur mugimendu bat euskal kultura kezka bizi zuena, eta, zerbait egin nahian, omenaldi bat egiten hasi ziren. Azkenerako, urteroko ospakizun bihurtu zen. [...] 90eko hamarkadan batzorde batzuk antolatu zituzten, eta orduan hasi zen erakundetzen eta forma hartzen. Dena den, guk 1972. urteari lotzen diogu sorrera, ametsa orduantxe hasi zelako esnatzen. Trikiti elkarteak diru gutxi izan du beti, baina ameslari asko, eta horrek salbatu gaitu. [...] Diru publikoak beste lehentasun batzuk zituen, eta trikitiari ez zion inork dirurik eman nahi».

«Trikiti elkarteak ez da bulego baten aurrean jarri eta bere gisara eratu den elkarte bat. Behetik gora eraikitako proiektu bat izan da. Gure indargune nagusia izan da herri batek babestu gaituela eta bazkide komunitate zabal bat sortu dela gure inguruan. Merkatuaren logikatik harago doan ekosistema propioa eraiki dugu, eta ekin-tza asko ekoitzi ditu elkarteak bere kabuz, txikitik, jendearen borondate mugagabeari esker».

Berria. 2024/11/02

AGUS BARANDIARAN

«Trikitiarentzat, nik beti bi pentagrama idazten ditut, eta horiek banda baten 60 pentagramatara eramatea gauza zaila da; paper gainean polita da, baina gero egin egin behar da, eta hori Xabier Zabalak egin du. Proiektua aurkeztu nionetik bertatik, beti erraztu dizkigu behar genituen tresna guztiak».

Berria. 2024/11/29

JOSUNE ARAKISTAIN

Nola definituko zenuke diskoa?

Esango nuke Euskal Herriko errealitate bat islatzen duela. Askotan iruditzen zaigu trikitia eta teknoa edo elektronika ez direla bateragarriak. Baina nire kasuan, nire inguruan behintzat, oso naturala den zerbait da elkarketa hau. Eta esango nuke diskoa entzun dutenei ere ez zaiela arrotza egin, errez barneratu dituztela abestiak. Ez zaie gauza oso esperimental bat irudituko, oso naturala suertatu zaie. Beraz, errealitate baten isla da.

Mondosonoro. 2024/11/29



IRITZI ARTIKULUA



Izaskun Igoa

HAUSPOA BIHOTZEAN

Olentzerori eskatu nion ekartzeko bat. Urdin kolorekoa. Geroago pentsatu izan dut Olentzerok ez balit kolorean kasurik egin, hobe. Baina, kutxa hura ireki nuen momentua... ariman gelditu zait zizelkatua betirako. Pentsatzen dut begietan ezin zitzaidala poz gehiago sartu. Eta ez nik bakarrik, familia osoak pasa behar izan zituen eguberriak Pintto-Pintto entzuten (Pintto-Pintto zatikatu bat gainera, denek genekien kanta noiz hasten zen baina inork ez zekien bukaera zenbat errepikapen puskatu eta gero iritsiko zen). Haien iritzia ere galdegin behar litzake denentzat pozgarria ote zen jakiteko.

Trikitixa bat esku artean hartzean, nire anatomia propioaren irudi berezi bat ematen dit instrumentuak. Bihotzaren parean jartzen dut hauspoa, edo bihotza hauspoaren kontra. Bi eskuak alde banatan eta ahoa libre, kantatzeko edo agian oihuz laguntzeko kantuari ernatzen. Beti narama nagoen egoeratik bertze egoera batera eta onartu behar dut, aunitzetan bihotza bera astindu didala hauspoak.

Sukaldea da nire eszenatoki gustukoena; nire etxeko sukaldea eta ama, aita, izeba, osaba, lehengusu-lehengusina eta anaia hor badaude, hobe. Eta ez badaude, baina jotzen entzun banaute, badago sukaldera goituko denik ere. Profesionaltasun faltaren askatasunean mugitu naiz, gozamina eta irudimena izan dira sortutako kanturik onenak, nahiz batzuetan gehiago ez ikasi izanaren pena ere badudan eta denbora tarte luzeetan uzten dudan trikitixa bere kutxaren barnean.

Aurten ere Olentzerori gutun bat bidaliko diot, baina aurtengoan, eskatzen baino eskertzen: eskertzen instrumentu honen umiltasuna oparitu izanagatik, bere jolasa biziaraizagatik, teoria ulertzen ez duten behatz mugimenduen magia ikusten laguntzeagatik, sukalde eta karrikako giroa inarroteagatik, nire egote emozionala mugimendura eramaneagatik eta batez ere, berriz errepikatu behar dut, batez ere, hauspoa bihotzean paratu izanagatik: bihotzak erraten ez zekizkien hitzak, haizeak kantuz hauspotu dizkidalako.



BERTSOA

ALAIA MARTIN

2024ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako txapelduna



Beste urte batez gure sustraiaik
ez dira egon gordeta,
herririk herri, plazarik plaza
eskuek zenbat olgeta!
Bi mila eta hogeitabosta
atean dabil kolpeka;
jo trikitixa, panderoari
eman jira eta buelta,
urte berriak besarka gaitzan
eskuak ongi beteta!


Doinua: Euskal Herriko lur maite hartan

IRAILAK

21

ABENDUAK

21



altzaporru

ALTZAPORRU

2024

URTEKARIA

EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

